



**FUNDACIÓN ARMA PLAZA/  
ARMA PLAZA FUNDAZIOA**

***2015EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU  
LABURTUAK IKUSKARITZA-TXOSTENAREKIN  
BATERA / CUENTAS ANUALES ABREVIADAS  
AL 31 DE DICIEMBRE DE 2015  
JUNTO CON EL INFORME DE DE LOS AUDITORES***



## URTEKO KONTU LABURTUEN KONTU-IKUSKARITZA TXOSTENA / INFORME DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES ABREVIADAS

FUNDACIÓN ARMA PLAZA / ARMA PLAZA  
FUNDAZIOA-ren Lehendakariari:

FUNDACIÓN ARMA PLAZA/ARMA PLAZA  
FUNDAZIOAren erantsitako urteko kontu laburtuak  
ikuskatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek, 2015eko  
abenduaren 31ko balantze laburtuak, eta aipatutako datan  
bukatutako ekitaldiari dagozkion galduirabazien kontu  
laburtuak eta memoria laburtuak osatzen dituzte.

*Urteko kontu laburtuei dagokionez, administratzaileen  
erantzukizuna*

Entitatearen administratzaileen erantzukizuna da  
erantsitako urteko kontu laburtuak burutzea,  
FUNDAZIO ARMA PLAZA/ARMA PLAZA  
FUNDAZIOAren ondarearen, egoera finantzarioaren eta  
emaitzen irudi fidela adieraziz. Horretarako, entitateari  
Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren  
Legeriarekin (erantsitako memoriako 2.a oharrean  
aipatzen dena), eta iruzurrengatik edo errakuntzengatik  
hutsigite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak  
prestatzeko egokiena den barne kontrolarekin bat etorritz  
prestatu behar dituzte.

*Auditorearen erantzukizuna*

Gure erantzukizuna, guk egindako ikuskaritzan oinarrituta,  
erantsitako urteko kontu laburtuei buruzko iritzia  
adieraztea da. Espainian indarrean dagoen kontuen  
ikuskaritzarako araudiarekin bat etorritz egin dugu  
ikuskaritza lana. Araudi honen arabera etika-eskakizunak  
bete eta ikuskaritza lana planifikatu eta gauzatu behar  
dugu, urteko kontuek hutsigite esanguratsurik ez  
daukatela modu arrazoigarrian ziurtatzeko helburuarekin.

Ikuskaritza batek, urteko kontuetan biltzen den  
informazioari eta zenbatekoei buruz ikuskaritzako  
ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten prozedurak  
aplikatzea eskatzen du. Aukeratutako prozedurak  
auditorearen iritzia araberakoak dira, iruzurrengatik  
edo errakuntzengatik urteko kontuetan hutsigite  
esanguratsurik egoteko arriskuaren balioztatzea barne.  
Arriskuaren balioztatzea egitean, sozietateak urteko

Al Presidente de FUNDACIÓN ARMA PLAZA /  
ARMA PLAZA FUNDAZIOA:

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas  
adjuntas de FUNDACIÓN ARMA PLAZA/ARMA  
PLAZA FUNDAZIOA, que comprenden el balance  
abreviado a 31 de diciembre de 2015, la cuenta de  
pérdidas y ganancias abreviada y la memoria  
abreviada correspondientes al ejercicio terminado en  
dicha fecha.

*Responsabilidad de los administradores en relación  
con las cuentas anuales abreviadas*

Los administradores son responsables de formular las  
cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que  
expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación  
financiera y de los resultados de FUNDACIÓN  
ARMA PLAZA/ARMA PLAZA FUNDAZIOA, de  
conformidad con el marco normativo de información  
financiera aplicable a la entidad en España, que se  
identifica en la nota 2.a de la memoria adjunta, y del  
control interno que consideren necesario para permitir  
la preparación de cuentas anuales libres de  
incorrección material, debida a fraude o error.

*Responsabilidad del auditor*

Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre  
las cuentas anuales abreviadas adjuntas basada en  
nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra  
auditoría de conformidad con la normativa reguladora  
de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha  
normativa exige que cumplamos los requerimientos de  
ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la  
auditoría con el fin de obtener una seguridad  
razonable de que las cuentas anuales están libres de  
incorrecciones materiales.

Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos  
para obtener evidencia de auditoría sobre los importes  
y la información revelada en las cuentas anuales. Los  
procedimientos seleccionados dependen del juicio del  
auditor, incluida la valoración de los riesgos de  
incorrección material en las cuentas anuales, debida a  
fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del

kontuak presta ditzan garrantzitsua den barne kontrola kontuan izango du auditoreak. Era horretan, egoeren arabera egokiak diren ikuskaritza prozedurak diseinatu nahi dira, eta ez sozietatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia eman. Ikuskaritza batean, aplikatutako kontabilitate-irizpideen egokitasunaren, zuzendaritzak egindako estimazioen arrazoigarritasunaren eta osotasunean hartutako urteko kontuen aurkezpenaren ebaluazioa ere egin behar dira.

Lortu dugun ikuskaritzako ebidentziarekin ikuskaritza iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

#### *Iritzia*

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu laburtuek, arlo esanguratsu guztietan, 2015eko abenduaren 31n FUNDACIÓN ARMA PLAZA/ARMA PLAZA FUNDAZIOAren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren legeriaren arabera, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta -arauekin.

riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales tomadas en su conjunto.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.

#### *Opinión*

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de FUNDACIÓN ARMA PLAZA/ARMA PLAZA FUNDAZIOA a 31 de diciembre de 2015, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo

**Betean Auditoría, S.L.P.**

**(Kontu-ikuskarrien Erregistro Ofizialean (ROAC) S-1354 zenbakiarekin inskribatutako sozietatea) / (Sociedad inscrita en el R.O.A.C. con el nº S-1354)**

Pedro Odriozola Zubia

2016ko ekainak 17 / 17 de junio de 2016

**FUNDACIÓN ARMA PLAZA/  
ARMA PLAZA FUNDAZIOA**

***2015EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU  
LABURTUAK / CUENTAS ANUALES ABREVIADAS  
AL 31 DE DICIEMBRE DE 2015***

## ARMA PLAZA FUNDAZIOA

2015 ekitaldiko itxiera balantzea

<b>AKTIBOIA</b>	<b>MEMORIAREN OHARRAK</b>	<b>2.015</b>	<b>2.014</b>
<b>A) AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>18.122,56</b>	<b>26.029,05</b>
<b>I. Ibilgetu ukiezina</b>			
5. Informatika-aplikazioak	5	940,08	2.643,24
<b>II. Ondare historikoko ondasunak</b>		940,08	2.643,24
<b>III. Ibilgetu materiala</b>		0,00	0,00
2. Instalazio teknikoak, makineria, tresneria, altzariak eta beste ibilgetu materiala	5	17.182,48	23.385,81
<b>IV. Ondasun higiezinak inbertsioak</b>		17.182,48	23.385,81
<b>V. Epe luzeko inbertsioak enpresa, taldeko entitate eta elkartutakoetan</b>		0,00	0,00
<b>VI. Epe luzeko finantza inbertsioak</b>		0,00	0,00
<b>VII. Zerga geroratuak (VV)</b>		0,00	0,00
<b>B) AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>63.452,91</b>	<b>56.549,29</b>
<b>I. Izakinak</b>			
1. Komertzialak		21.951,72	10.523,11
1. Komertzialak		21.951,72	10.523,11
<b>II. Erabiltzaileak eta bestelako berezko jardueraren zordunak</b>	6	9.559,45	4.442,90
<b>III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	10	7.192,65	13.913,15
6. Administrazio Publikoekin beste kredituak		7.192,65	13.913,15
<b>IV. Epe motzeko inbertsioak enpresa, taldeko entitate eta elkartutakoetan</b>		0,00	0,00
<b>V. Epe motzeko finantza inbertsioak</b>		0,00	0,00
<b>VI. Epe motzeko periodifikatzeak</b>		0,00	0,00
<b>VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	7	24.749,09	27.670,13
1. Diruzaintza		24.749,09	27.670,13
<b>AKTIBOIA GUZTIRA (A + B)</b>		<b>81.575,47</b>	<b>82.578,34</b>

<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA</b>	<b>MEMORIAREN OHARRAK</b>	<b>2.015</b>	<b>2.014</b>
<b>A) ONDARE GARBIA</b>		<b>27.698,75</b>	<b>38.711,44</b>
<b>A-1) Fondo propioak</b>			
<b>I. Fundazioaren zuzkidura/Fondo Soziala</b>	9	23.685,50	35.000,00
1. Fundazioaren zuzkidura/Fondo Soziala		35.000,00	35.000,00
<b>II. Erreserbak</b>		35.000,00	35.000,00
<b>III. Aurreko ekitaldietako soberakinak</b>		0,00	0,00
1. Soberakina		0,00	0,00
<b>IV. Ekitaldiko soberakina</b>	3	-11.314,50	0,00
<b>A-2) Balio aldaketengatik doikuntzak: (V)</b>		0,00	0,00
<b>I. Salmentarako aktibo finantzario erabilgarriak</b>		0,00	0,00
<b>II. Estaldura eragiketak</b>		0,00	0,00
<b>III. Bestelakoak</b>		0,00	0,00
<b>A-2) Diru-laguntzak, emariak eta jasotako ondareak</b>		4.013,25	3.711,44
<b>B) PASIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>I. Epe luzeko hornidurak</b>			
<b>II. Epe luzeko zorrak</b>		0,00	0,00
<b>III. Epe luzeko zorrak enpres, taldeko entitate eta elkartutakoekin</b>		0,00	0,00
<b>IV. Zerga geroratuengatik pasiboak (VV)</b>		0,00	0,00
<b>V. Epe luzeko periodifikatzeak</b>		0,00	0,00
<b>C) PASIBO ARRUNTA</b>		<b>53.876,72</b>	<b>43.866,90</b>
<b>I. Salmentarako mantentutako aktibo arruntekin elkartutako pasiboak</b>		0,00	0,00
<b>I. Epe laburreko hornidurak</b>		0,00	0,00
<b>II. Epe laburreko zorrak</b>		0,00	0,00
<b>III. Epe motzeko zorrak enpresa, taldeko entitate eta elkartutakoekin</b>		0,00	0,00
<b>IV. Onuradunak- Hartzekodunak</b>		0,00	0,00
<b>V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>		20.876,72	18.399,87
1. Hornitzaileak	8	20.182,62	14.233,28
6. Administrazio Publikoekin beste zorrak	10	694,10	4.166,59
<b>VI. Epe laburreko periodifikatzeak</b>	8	33.000,00	25.467,03
<b>ONDARE NETOA ETA PASIBOIA GUZTIRA (A + B + C)</b>		<b>81.575,47</b>	<b>82.578,34</b>

Mikroerakundeentzat onartutako inzipideak aukeratzen dituzten erakundeek ez dituzte (VV) ikurrarekin seinalatutako partidak

**PATORNATU-BURUA**

**IDAZKARIA**

Izp. Txomin Sagarzazu Ancisar

Izp. José Anonio Salaverria Osinalde

# ARMA PLAZA FUNDAZIOA

2015ko abenduak 31an itxitako ekitaldiaren emaitza kontua

	MEMORIAREN OHARRAK	(Zor) Hartzeko 2.015	(Zor) Hartzeko 2.014
<b>A) Ekitaldiko soberakinak</b>			
1. Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak		333.155,18	269.655,78
b) Erabiltzaileen ekarpenak		52.602,10	38.767,28
c) Sustapenak, laguntza eta lankidetzeeen diru-sarrerak		3.750,00	4.055,00
d) Ekitaldiko sobreakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	276.803,08	226.833,50
2. Salmentak eta merkataritza-jardueraren diru-sarrerak		0,00	0,00
3. Laguntza eta besteengatik gastuak		0,00	0,00
4. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa		0,00	0,00
5. Entitateak eginiko lanak bere aktiborako		0,00	0,00
6. Hornikuntzak		0,00	0,00
7. Jarduerako bestelako diru-sarrerak	11	-12.614,56	-7.502,66
8. Pertsonal-gastuak		176,09	474,00
9. Jarduerako bestelako gastuak		0,00	0,00
a) Kanpo zerbitzuak	11	-323.822,91	-254.418,81
10. Ibilgetuaren amortizazioa		-323.822,91	-254.418,81
11. Ekitaldiko emaitzara eramandako kapitaleko diru laguntza, dohaintzak eta legatuak	5	-9.235,71	-9.025,03
a) Ekitaldiko emaitzara eramandako kapitaleko diru laguntzako		1.027,41	816,72
12. Hornidura soberakinak		1.027,41	816,72
13. Ibilgetuaren hondatzea eta besterentzearen emaitza		0,00	0,00
<b>A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)</b>		-11.314,50	0,00
14. Finantzako diru-sarrerak		0,00	0,00
15. Finantzako gastuak		0,00	0,00
16. Arrazoizko balioaren aldaketa finantza-tresnetan		0,00	0,00
17. Kanbio diferentziak		0,00	0,00
18. Finantza tresnen hondatzea eta besterentzearen emaitza		0,00	0,00
b) Besterengatze eta bestelakoengatik emaitzak		0,00	0,00
<b>A.2) ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA (14+15+16+17+18)</b>		0,00	0,00
<b>A.3) ZERGAK APLIKATU AURREKO EMAITZA(A.1+A.2)</b>		-11.314,50	0,00
19. Mozkinen gaineko zerga		0,00	0,00
<b>A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN SOBERAKINA (A.3 +19)</b>		-11.314,50	0,00
<b>B) Etendako eragiketak</b>			
20. Zergetatik garbi etendako eragiketen ekitaldiko soberakina			
<b>A.4) Ondare garbiaren aldaketa ondare garbian zuzenean aitortutako sarrera eta gastuak (A.3. + 19)</b>		-11.314,50	0,00
<b>B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuak **.</b>			
1. Salmentarako erabilgarri dauden aktibo finantzarioak		0,00	0,00
2. Esku-diru fluxuen estaldura eragiketak		0,00	0,00
1. Jasotako diru-laguntzak		1.329,22	2.438,59
2. Jasotako dohaintzak eta legatuak		0,00	0,00
3. Gainerako diru-sarrerak eta gastuak		0,00	0,00
4. Ezarpeneko efektua		0,00	0,00
<b>B.1) Ondare garbiaren aldaketa, ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera eta gastuak (1+2+3+4)</b>		1.329,22	2.438,59
<b>C) Reclasificaciones al excedente del ejercicio</b>			
1. Activos financieros disponibles para la venta		0,00	0,00
2. Operaciones de cobertura de flujos de efectivo		0,00	0,00
1. Jasotako diru-laguntzak		-1.027,41	-816,72
2. Jasotako dohaintzak eta legatuak		0,00	0,00
3. Gainerako diru-sarrerak eta gastuak		0,00	0,00
4. Ezarpeneko efektua		0,00	0,00
<b>C.1) Ekitaldiko soberakinaren birsailkapenen ondorioz ondare garbian izandako aldaketak (1+2+3+4)</b>		-1.027,41	-816,72
<b>D) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuengatik aldaketak ondare garbian(B.1+C.1)</b>		301,81	1.621,87
<b>E) Irizpide aldaketengatik doikuntzak</b>		0,00	0,00
<b>F) Akatsengatik doikuntzak</b>		0,00	0,00
<b>G) Aldaketak sortze dotazioan edo gizarte funtsean</b>		0,00	0,00
<b>H) Bestelako aldaketak</b>		0,00	0,00
<b>I) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN (A.4+D+E+F+G+H)</b>		-11.012,69	1.621,87

\*\* Bere zeinua positiboa eta negatiboa izan daiteke

PATORNATU-BURUA

IDAZKARIA



Izp. Txomin Sagarzazu Ancisar



Izp. José Antonio Salaverria Osinalde

## MEMORIA

### ARMA PLAZA FUNDAZIOA

#### 2015EKO ABENDUAK 31

#### **(1) Erakundearen aktibitatea**

Justizia eta Herri Administrazioari sailburuaren 2012ko abuztuaren 20ko aginduaren bitartez "ARMA PLAZA FUNDAZIOA" Euskal Autonomi Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen.

Fundazioak egoitza Hondarribiko (Gipuzkoa) Pampinot kaleko 16an du, eta helburu hauek ditu:

- Hondarribian dauden monumentuak zaintzea eta zaharberritzea, eta monumentuen ingurunea hobetzea eta egokitzea. Horretarako, haiek balioestea bultzatuko du, eta, hala, zer diren kontuan izanik egokienak irizten diren erabilerak izendatuko zaizkie.
- Hondarribiaren natura, kultura eta paisaia ondarea zaintzea eta zabaltzea.
- Ahalegina egitea bere helburuak lortzera bideratutako jardueretan partikularrek edo entitate publiko nahiz pribatuak parte har dezaten.
- Bere helburuen zabalkundea egitea herritarren artean, helburuok hobeto ezagutarazteko eta, funtsezko ekarpenak eginda, hobeto betetzeko.

#### **(2) Urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak**

##### **a) Irudi fidela-**

Urteko Kontu Laburtuak ARMA PLAZA FUNDAZIOAREN kontabilitate erregistroetatik lortu dira eta Kontabilitate Plan Orokorren arabera aurkezten dira; hala, ARMA PLAZA FUNDAZIOAREN ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela erakusten da.

##### **b) Kontabilitate irizpideak-**

Erantsita doazen 2015 ekitaldiko Urteko Kontu Laburtuak 2015eko abenduaren 31ko Fundazioari kontabilitate erregistroetan oinarrituta egin dira. Kontuetan 1491/2011 Errege Dekretuan — Dekretuak irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorri egokitzeko arauak eta irabazi asmorik gabeko entitateen jardueraren planaren eredu onartzen ditu— agertzen diren kontabilitate irizpideak eta balorazio irizpideak aplikatu dira.

##### **c) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren kalkulua-**

ARMA PLAZA FUNDAZIOak bere egoera finantzarioak egiterakoan “jardunean dabilen enpresa” irizpidean oinarritu da, beraz ez dago hurrengo ekitaldian aktibo eta pasiboen balioan aldaketa nabarmenik egoteko arriskurik.

Atxikita doazen kontuetan batzuetan Fundazioaren Zuzendaritzak egindako balioespenak erabili dira bertan erregistratuak ageri diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu, eta konpromisoak kuantifikatzeko.

Nahiz eta balioespen horiek une hartan —urteko kontu hauek aztertu zirenean— zegoen informaziorik hoberenetan oinarrituta egin ziren, baliteke etorkizuneko zenbait gertaerak kontu horiek hurrengo ekitaldietan aldaraztea (goraka edo beheraka); hala izanez gero, aldaketa horiek gerora begira egingo liriateke, dagokien etorkizuneko galdu irabazien kontuetan izaten ahal dituzten ondorioak aintzat hartuz.

#### **d) Informazioaren konparazioa-**

Urteko kontuetan, balantzearen eta galdu irabaziaren partida bakoitzean, 2015 ekitaldiko datuez gain 2014 ekitaldikoak ere agertzen dira alderatu ahal izateko. Era berean, memoria honetan 2015e ekitaldiko informazioaz gain 2014koa ere agertzen da konparazio moduan.

### **(3) Emaitzen aplikazioa**

Fundazioko Batzorde Nagusiak 2015 eta 2014 ekitaldietarako proposatutako emaitzaren banaketa hurrengoa da:

<b>BANAKETA OINARRIA</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>
Ekitaldiaren soberakina (Mozkina)	-11.314,50	0,00
<b>APLIKAZIOA</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>
Emaitza negatiboak aurreko ekitaldiak	-11.314,50	0,00

### **(4) Balorazio arauak eta erregistroa**

Hona hemen Fundazioak erabili dituen balorazio irizpide nagusiak indarrean dagoen legediarekin 2015 ekitaldiko urteko kontuak egiteko:



#### 4.1. Ibilgetu ukiezina-

- Hasiera batean ibilgetu ukiezina hura eskuratu zeneko kostuaren arabera baloratu da.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu ukiezina zera izango da, bere kostuari kenketa egin ondoren (amortizazio metatua eta, hala badagokio, erregistratutako hondatze zuzenketen zenbateko metatua kenduta) geratzen den balioa.

- Ibilgetu ukiezin bakoitzeko, aztertu egin da ea bititza erabilgarria mugatua edo mugagabea den.

Bititza erabilgarri zehaztua duten aktibo ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira, haien bititza erabilgarriaren eta hondar balioaren arabera balioetsita. Aplikatzen diren metodoak eta amortizazio denbora ekitaldi itxiera bakoitzean berrikusten dira, hala badagokio etorkizunera begira doituz. Bititza erabilgarriaren urteak (balioespena):

	Bizitza erabilgarri balioetsia
Aplikazio informatikoak	3 - 15

#### 4.2. Ibilgetu materiala-

- Oro har, ibilgetu materiala erosketaren prezioaren baitan dago baloratuta.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu materiala zera izango da, bere kostuari kenketa egin ondoren (amortizazio metatua eta, hala badagokio, erregistratutako hondatze zuzenketen zenbateko metatua kenduta) geratzen den balioa.

- Ibilgetuko ondasun baten balioaren hondatzeari dagokionez, bi maila bereizi behar dira:

Eskudirua sortzen duten ibilgetuko ondasunak: merkataritza etekina lortzeko izaten diren ondasunak; hartarako ondasunak edo zerbitzuen prestazioa ematen da.

Eskudirurik sortzen ez duten ibilgetuko ondasunak: merkataritza etekina sortzeko ez den beste helburu bat lortzeko izaten diren ondasunak, adibidez, aktibo horiek kolektibitatearen mesederako sortzen dituzten fluxu ekonomiko-sozialak, hau da, gizartearen onura edo zerbitzu ahalmena dutenak.

Aktiboen helburua argia ez den kasuetan, kontuan izanda asmorik gabeko entitateek izaten dituzten helburu orokorrak, sortzaileak ez diren aktibotzat hartuko dira.

Sortzaile gisa identifikatutako ondasunak direnean, 1514/2007 Errege Dekretuan (Kontabilitate Plan Orokorreko irizpideei dagokienez) hondatze, baja eta permutetarako aurreikusitako irizpide orokorrak aplikatuko dira.

Eskudirurik sortzen ez duen aktibo baten hondatzeak berarekin dakar aktibo baten zerbitzuen galtze potentziala. Hori gertatuko da bere kontabilitate balioa handiagoa denean bere kopuru berreskuragarria baino, eta balio berreskuragarria zera izango da, bi kopuru hauen arteko balio handiena: batetik bere arrazoizko balioa ken salmenta kostua, eta bestetik erabiltze-balioa.

- Erakundeak ekitaldian zehar egindako lan eta konponketek sortutako gastuak dagokien gastuen kontuan kargatuko dira. Ekoizpen ahalmena edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatu edo handitzen dituzten zabaltze edo hobetze kostuak aktiboari gehitzen zaizkio, honen balioa handituz. Gastu horien zenbatekoa uneko ibilgetu materialaren kontuetan kargatzen da, eta Fundazioak berarentzat egindako lanen sarrera-partidan egiten da abonua.
- Ibilgetu materialean egindako konponketa handien kostuak ordezkapen gisa hartzen dira gertatzen diren momentuan, eta hurrengo konponketa eman arteko denboran amortizatzen dira; ibilgetuaren balio kontablean konponketarekin lotutako edozein zenbatekori baja ematen zaio.
- Ibilgetu materialeko osagaien amortizazioa era linealean egiten da, martxan jartzeko prest daudenetik zenbatesten zaion bizitza erabilgarrian zehar, eta hondar balio nulua dutela irizten da, bizitza erabilgarriaren urteen arabera:

	Bizitza erabilgarri zenbatetsia
Instalazio teknikoak eta makineria	6,6 - 15
Beste instalazioak, tresneria eta altzariak	6,6 - 15
Beste ibilgetuak	3 - 15

### 4.3 Berezko jardueraren kreditu eta zorrak

Arau hau ondorengoari aplikatzen zaio:

- a) Berezko jarduerarengatik kredituak: berezko jardueragatik onuradun, erabiltzaile, babesle eta afiliatuen aurrean sortzen diren aurrekobrantza eskubideak dira.
  - Babesle, afiliatu edo beste zordunengandik datozen epe laburreko kuota, opari eta bestelako laguntzak haien balio nominalaren baitan kontabilizatzen dira. Epemugak epe hor gainditzen badu, orain duten balioaren baitan aitortzen dira. Oraingo balioaren eta kredituaren balio nominalaren arteko aldea sarrera finantzario gisa erregistratzen da emaitza kontuan, amortizazio kostuaren irizpidearen arabera.

- Berezko jardueran 0 interes motako edo merkatuko interesaren azpitik jasotako kredituak zentzuzko balioaren arabera kontabilizatzen dira. Zentzuzko balioaren eta emandako zenbatekoaren arteko aldea hasieran emaitzen kontuan gastu gisa aitortzen dira, haien izaeraren arabera. Lehenengo aitortpenaren ondoren, egindako deskontua atzera bueltatu izana finantza diru-sarrera gisa kontabilizatzen da, emaitzen kontuan.
  - Ekitaldiaren itxieran —gutxienez— beharrezko balorazio zuzenketak egiten dira aktibo horien balioan murrizketa egon delako nabarmentasun objektiboa baldin badago, eta amortizazio kostuaren irizpidea aplikatzen da.
- b) Berezko aktibitatearengatiko zorrak: berezko jarduerak aurrera eramateko erakundearen onuradunei emandako laguntza eta bestelako esleipenek sortzen dituzten zorrak dira.
- Epe laburrera erakundeak bere onuradunei emandako laguntza eta bestelako esleipenek, pasibo bat sortzen dute, haien balio nominala aintzat hartuta. Muga-egunak epe hori gaingitzen badu, oraingo balioaren baitan aitortzen dira. Oraingo balioaren eta zorraren balio nominalaren arteko aldea finantza gastu gisa kontabilizatzen da emaitza kontuan, amortizatutako kostu irizpideari jarraiki.
  - Zenbait urtetarako laguntza bada, pasiboa hitzemandako zenbatekoaren gaur egungo balioaren baitan erregistratzen da, eta derrigor hala izango da. Irizpide hori bera aplikatuko da laguntzaren luzapena ez dagoenean aldiari aldiko azterketen baitan, baizik eta izapide administratibo edo formal hutsak betetzearen baitan.

#### 4.4 Baliabide finantzarioak-

Balantze laburtuan, baliabide finantzarioak epemugaren arabera sailkatzen dira, eta epe laburreko zorrak 2016ko abenduaren 31 baino lehenagoko epemuga (12 hilabete) dutenak dira.

##### a.) Finantza aktiboak

Finantza aktiboak hauek dira: esku-dirua, edo beste enpresa baten ondare instrumentu bat; eta horiez gain, kontratuzko eskubide bat, bidea ematen duena eskudirua edo finantza aktiboa eskuratzeko edo hirugarrenekin baldintza onuragarrietan (ustez) aktiboak eta pasiboak elkartrukatzeko.

Fundazioaren aktibo finantzarioen balorazioa hurrengo sailkapenaren arabera egiten da:

##### **\* Esku-dirua eta bestelako baliabide likido baliokideak**

Atxikitako egoera-balantzearen epigrafe honen barruan zera erregistratzen da, kutxa eta bankuetan dagoen eskudirua, ageriko gordailuak, eta kutxan azkar egin litezkeen bestelako inbertsioak, likidezia handikoak eta epe laburrekoak, bere balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

##### **\* Maileguak eta kobratzeke dauden partidak**

Epe luzerako epemuga dutenak hasiera batean merkatu kostuaren baitan erregistratzen dira, eta ondoren amortizatutako kostuan baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, eta interes efektiboa aplikatzen zaie.

Epe motzeko epemuga dutenak eta kontratuzko interes tasarik ez dutenak, pertsonalari emandako aurrerakinak eta maileguak, kobratzeko dibidenduak, eta ondarearen instrumentuen gainean eskatutako ordainketak, horiek guztiak bere balio nominalaren baitan baloratzen dira.

**\* *Epemuga arte mantendutako inbertsioak***

Hauek dira: Zor-balioak —epemuga bat ezarria dutenak—, zenbateko zehaztu edo zehaztugabekoak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak, eta Fundazioak bere epemuga bete arte mantendu nahi eta ahal dituenak.

Haien kostu amortizatuaren baitan kontabilizatzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes efektiboa aplikatuz.

b.) Finantza pasiboak

Jaulkitako, jausitako edo onartutako instrumentu finantzarioak finantza pasibo gisa sailkatzen dira, osorik edo zati batean. Hori egiten da, betiere haien errealitate ekonomikoa aintzat hartuta enpresari kontratuzko obligazioa —zuzena nahiz zeharkakoa— sortzen badiote eskudirua nahiz bestelako finantza aktiboa emateko, edo hirugarrenekin aktibo edo pasibo finantzarioak elkartrukatzeko, ustez egoera kaltegarrietan.

Fundazioaren pasibo finantzarioen balorazioa hurrengo sailkapenaren arabera egiten da:

**\* *Zorrak eta ordaintzeke dauden partidak***

Maileguak, obligazioak eta antzekoak jasotako zenbatekoaren baitan erregistratzen dira hasiera batean, transakzioan izandako kostu garbiaren baitan. Finantza gastuak, likidazioan edo itzultzean ordainduko diren primak eta transakzio kostuak barne, galdu irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes efektiboaren metodoan erabilitako sortzapen irizpidearen arabera. Sortutako baina likidatu gabeko zenbatekoa liburuetan gehitzen da, sortzen diren ekitaldian likidatzen ez diren heinean.

Epe laburrerako epemuga duten eta kontratuzko interes tasarik ez duten merkataritza eragiketetatik eratorritakoak, eta era berean hirugarrenek eskatutako partizipazioen gaineko ordainketak —baldin eta horien ordainketa epe laburrean egitea espero bada— haien balio nominalaren baitan baloratzen dira.

Epe luzerako epemuga dutenak hasiera batean merkatu kostuaren baitan erregistratzen dira, eta ondoren amortizatutako kostuan baloratzen dira. Sortutako interesak galdu irabazien kontuan kontabilizatzen dira interes efektiboa aplikatuz.

c.) Ondare instrumentu propioak

Fondo propioen barruan dauden finantza instrumentu guztiak dira, baita jaulkitako ohiko akzioak ere.

#### **4.5. Izakinak-**

Erosketa prezioaren edo produkzio kostuaren arabera balioztatzen dira. Erosketa prezioa hornitzaileak fakturatutako zenbatekoa da, nominalari egindako deskontuak eta interesak kenduta, gehi izakinak bere salmenta lekura iristeko beharrezko gastu gehigarriak (garraioak, muga-zerga eta erosketari dagozkion bestelakoak) kenduta. Izakinen ekoizpen kostuari dagokionez, izakinak balioztatzen dira lehengaien erosketa kostuei eta bestelako kontsumigarrien kostuari honakoak gehituta, dagokien proportzioan: produktuari zuzenean egozten ahal zaizkion kostuak, eta produktuei zeharka egozten zaizkien kostuei dagokien proportzioa.

Zaharkitutako, akatsdun edo mugimendu moteleko produktuak balioztatzen dira izan lezaketen egikaritze balioaren baitan soilik.

Izakinen gauzatze balio garbia erosketa prezioa edo ekoizpen kostua baino txikiagoa denean, beharrezko balioztatze zuzenketak egiten dira, eta emaitza-kontuan gastu gisa erregistratzen dira.

Desagertuz gero izakinen balioztatzea zuzentzea eragin duten arrazoiak, zuzenketaren zenbatekoa atzera buelta daiteke, eta emaitza kontuan sarrera gisa erregistratu.

#### **4.6. Sozietateen gaineko zerga -**

Fundazioari aplikagarria zaion Sozietateen gaineko zergaren erregimen fiskala apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak — irabazi asmorik gabeko araubide fiskalari eta mezenasgorako sustapen fiskalei buruzko Arauak—erregulatzen du.

Araubide horren arabera, salbuetsita daude bai bere gizarte helburua edo helburu espezifikoak betez egiten diren jardueretatik eratorritako errentak, eta bai erakunde eta ustiapen ekonomikoen ondare higigarri eta higiezinetatik eratorritako errentak —baldin eta lehen aipatutako Arauko 9. artikuluan definitutako balditzak betetzen badituzte—.

Esandakoarekin, Fundazioaren ustiapen ekonomikoek Sozietateen gaineko Zergan salbuetsita egoteko baldintzak betetzen dituzte.

#### **4.7. Diru-sarrerak eta gastuak.**

- a) Diru-sarrerak eta gastuak sortze irizpidearen arabera egozten dira, beraien ondorioz ematen de moneta- edo finantza- korrontea noiznahi ematen dela ere.
- b) Hala ere, ekitaldi itxieran betetako mozkinak bakarrik kontabilizatuko ditu erakundeak, eta aurreikusten diren arriskuak eta galerak, berriz, ezagutu bezain laster kontabilizatuko dira, aldi batekoak izan arren.